

Santa Maria kaleko 2 zenbakiaren etxea

(Oroitzapenak)

1.603garren urtean Edestiak dionez, egin oizan Erreneriako Udal Etxea eta garai artan edo urte askoz zear, bere aldamenean dagozten etxeak, oietako bat Santa Maria kaletik sarrera daukan bigarren zanbakikoari 1.997ko Urrillaren 7an agur esan bear izan nion, nere jaiotetxeko etxeari, Udal etxea aunditu bearra izanik beraren zerbitzuak obetoago eraman al izateko.

Bertatik alde egiteko jarri nuben baldintzak adostasun osoa izandu zuan bi alderdietatik eta alde ortatik oso pozik gelditu naiz ordaiñez jarri nauten etxearekin, leku berezi eta orain etxeetan bear diran aurrerapen guztiak izanik.

Gertakizun au dala ta iruditu zait neri, nere oroimenean dauzkadan xeetasun batzuek azaltzea askorentzat naiz balio asko ez izan arren, nereztat bertan igarotako egunak oso gogorangarriak bai dira, bere orma zarretan irurogeita emeretzi urte igaro ondoren, 1.936.go Gudarengatik etxetik kanpo alde bear izan nuben, bai gudari, langille eta soldaduzkan pasa bear izandu nituan urte batzuek, beste illabete batzuek ere Ondarretako espetxean igaro nituen bañan gainerako urte danak etxe zarrarian pasiak dira.

Etxetik kanpo ibilli nintzarian Espaiñiko erri asko ikusi al izan nituan nere langille bezelako bizitza artan, Burgos, Santander, Leon, Galizia, Andaluzia eta Logroño, Bizkaia eta Donostiako Ondarreta gudari eta espetxeratua egondako egunak osatuaz.

Ea bada asi naizean nere bizitzan izandu diran berri batzuek azaltzen, bai biztanle eta gertakizunak oroimenean dauzkatenak beintzat, bai etxekoneko eta biztanle izan genituanak gure alboan.

1.918.go Uztaillaren 8an jaio nintzan Magdalen jaiak oso urbil nitualarik etxeko lenengo bizitzan sendiko azken fruitua izanik, aita amak Joakin Olaskoaga eta Brijida Lasa, Pilar, Mayi, Sabin, Miren anai arrebak nitualarik; 1.921garren urtean Urrillaren 20an il zan aita, era orretan oso gazterik aitarik gabe gelditu izanik.

Urte orretan goi bizitzan bizi ziran Juan Lasa eta Maria Olaziregi ezkon berriak bertan beren lenengo semea izandu zuten berau izanik bertan jaio zan azkenekoa, Nikolas Lasa Olaziregi da bere izena. Onen ondoren ez zan jaiotza geiago izan etxe osoan.

1.920garren urtean bigarren bizitzan On Jose Zinkunegi Arruti erriko Osagillea bere emazte Marzelina Zabala eta seme Markelinekin bizitu ziran, urte batzuek igaro ondoren Zarautzera joan ziran bertan bizi bide berria izanik, On Jose au E.A.J.ko Arana Goiri tar Sabinen lagun eta alderdiaren lenengoetako partaide bat izandu zan orduko argazkietan azaltzen oi dan bezela.

Auek utzitako bizilekuan 1.925garren urtean Iparaldetik etorritako Maria Etcheberri eta bere seme Jean Pierre Othaitz bizitu ziran, benetan amona maitagarria izan zan amona Maria bere Lapurdiar izkera goxoa erabiltzen zualarik beti gogoan izandu det amonatxo atsegin ura, 1.928garren urte arte bizilagun bezela izan nituen.

1.928.go urtean Elizegi-Zinkunegi sendia lapurditarrak utzitako bizitzataz jabetu ziran Domingo eta Mikaela senar emazteak, Franzizko, Pilar, Domingo, Klara eta Zipriano seme alabak zituelarik.

1.932garren urtean Elizegitarak alde egin ondoren Flores-Granado sendia urbildu zan Peñaranda de Bracamonte erritik beren alaba Ignaziak erri ikastoleko zuzendari langintza lortu al izanda bertara etorri bearra izan zuten.

Oso ezagun izandu ziren sendikoak bai Doña Ignazia, emen esaten zioten bezela, erriko gaztedi askoren irakasle izandu bai zan, orobat bere anai Zeferino Errepublika denborako gestora batean ziñegotzi bezela egondu zan eta erriko festetan jaien arduradun bezela egondu zan eta urte artako festak oso oroituak izandu ziran aldakuntza izan bai zituzten beraiek, auek 1.954 arte-raiño gutxi gora bera iraun zuten sendiko guztiak eriotzak eramanak izandu bai ziran.

1.945garren urtean eta goi bizitzan Fede Santamarta eta Juli Plagaro bizi izandu ziran urte batzutan. Monedero alarguna 1.968 urte aldean bere seme alabarekin azken biztanleak izanik.

Gure etxean amak bertarako bear zituan laguntza lortzeko modu askotara beartua izandu zan eta arropa garbitzalle, koltxoi lana prestatzen ta gurekin bizi lagun bezela bizitu ziran 1.925 urte aldera On Klemente del Hoyo eta Joakin Altuna erriko Eresi Bandako irakasle izandu ziranak eta beste batzuen artean Fidel Azebal, Lagun Artea elkarte-ko korrikalaria Gipuzkoako txapeldun izana.



1997 Maiatza. (Argazkia: Jesus Hospitaler).

Etxeko be aldean mota askotako dendak izandu ziran eta gogoratzen ditudanak auek dira: Lasa Olaziregi sendiak janari denda bat eduki zuten oso errikoia izanik, 1.926 urte aldera ondorengo auek jarraian mailla obeagokoak eta desberdiñak ziran. Papelerako Langilleen Elkarteko janari denda urte batzuetan egondu zan Urkola aizpaka bertako lankide izanik. Ondoren Rikardo Salaberria sendiak janari denda eta arategian jabeak ziran auek; gero Maria Victoria Elizondoren arategia urte askoan egondu zan bertako bere seme Pio Santos buru izanik eta amaitzeko Zapatodos Oin jantzi denda dotorea jabetu zan leku orretaz eta au izandu zan etxe zarrean azken arte iraun zuan salmentarako lekua.

Auek izandu dira nere bizi denborako etxekoneko eta dendariak bañan urte oietan beste gertakizun eta ekintza asko izan dirade, oiek ere azaldu nai ditut. Bai alai eta tamalak urte auetan gertatutakoak, naiz Santa Maria Kalea izan Erriko enparantzara bai du bere begira leku berezia

Eleiz ataria ondoan izanik ta erriko festa, eginkizun tamalez zenbait iskanbilaren sor lekua izan da, egun tamaletan etxeko eriotzak aita, ama, arrebak Pilar eta Miren; Mayi eta Sabin kanpoan illak izanik, etxeko giroa langilleena, alaia, euskaldun eta kristau legean jarraitu izan da naiz ama seme askorekin gazterik alargun gelditu beti izandu zan lanaren eskubidea sendia aurrera ateratzeko.

Egun alaiaren artean 1.951.an ezkondu nintzan Maria Urtaza Kortabarria, Oñatiarrarekin eta urrengo urtean jaio zan gure seme Jabier era orretan sendi berria sortuaz, bañan jarrai dezagun aurrera. Nere etxe zarreko begira toki berdinegabetik ikusitako zenbait gauza esango nituzke bañan liburu aundi bat bearko nuke zueri gertakizun oiek azaltzeko eta labur bilduaz or dijoazkizue gogoratzen naizen batzuek, jolas leku nere aurtzarroan Erri Enparantz gertatutakoak. Mutikotxoa nintzanean nolakoak izaten ziran Iñauterriak, goiz eresi bikaiñak orduko gaztediaren dan-

tza saio eta alaitasunak, txistularien eresi aukeratuak bai ta ere Berpizkunde eguneko aztu eziñeko eta urtemordozka dala irtetzen ez duan Topada orrela ere Magdalen eguneko Eleiz bira gizon gartsuak bizkar gaiñean eleizara gure zaindaria dakartenean, orobat San Juan bezperako zugaitz aldamentean egiten dan dantza saioa bein bañan geiagotan parte arturik.

1.928 urtean Miguel Primo de Rivera Espaiñiko laterri burua Errenteriako ur ekartze auskundera etorri zanean, urte berean Udal etxean Jesusen Biotzaren tronoratu egitera etorri zan On Mateo Mujika Euskal Erriko lenen gotzai euskalduna izan zana, Real Union Espaiñiko Futbol txapeldun irten zanean egin zitzaion ongi etorria, berdin egin zitzaioten Jaka errian Erkalaren (Republica) aldeko matxinadan partaide izandu ziran bi Errenteriar gudariari.

Gogorangarria ere 1.920garren urteko 1º Euskal Olerki Eguna ez aztutzeko modukoa, oraindik ere Monarquia bai zegon agintzen eta euskal kutsu zuen guztia debekatua bai zegon, erria euskal giroan jantzirik, bertsolari, olerkari, eresi eta soiñu alaiak nagusi izandu ziran egun artan gure errian.

Niceto Alcala Zamora Espaiñako Erkalaren lendarria erria ikustera etorri zan eguna Erkalaren aldarriketa izan zan eguna eta ain gordeta zegoen gure ikurriña udal etxean Jose Lasak ipiñi zueñean, zeinbat eta zeinbat gertakizun eleiz atarian eta bere eskailleretan, eleizkizun, ezkontza, abes saio, antzerki, sariketa eta abar.

Gogorangarria ere Mexikotik bira egin da Alejandro Lizaso eta Periko Lizardi txistulariak lur aietan arrakasta aundia izan ondoren beren errira urbidu ziranean. Kontsejupeko Musika elkartearen eresi saio bikaiñak berdin dantzako saioak aguraldi txarra zanian eta Zumardian ezin jo al izaten zutenian saioa aldatu bearrean izaten ziran oiekin batean txistulariarenak oraindik jaunak lagun jarraitzen diranak Ereintzako txistulariekin.

Santa Maria Kaleko biyan
nitzan jaio eta azi
Eta bizitzako goraberak
bertan nituen ikasi
Kristau legea nere ama onak
ondo zidan erakutsi
Ta etxerako maitetasuna
biotzean sar erazi.

Irurogeita-emeretzi urte
nik ditut bertan igaro
Naiz urte batzuk guda zalata
pasa etxetikan kanpo
Etxe ori izan da neretzat
amets leku kabi goxo
Ta izan zera urte oietan
nere egintzan lekuko.

Ta orain erriaren bearrak
naute zu uztea arazi
Zer penarekin egin bear au
bear izan det irentsi
Bañan etxe zar maitagarria
zu gabe ezin det etsi
Argaitik nere biotz barruan
biziko zerade beti.

(Xabier)

1.998.go Maiatzean

Bañan tamalez ere egun txar eta larriak ikusi al izan ditut ainbat iskanbil, Enparantza orretan gertatutakoak, bereziki 1.983.go Magdalen besperan egiten oi dan zuziriaren jaurtialdiari festaren asiera adieraziz. Penagarria une ura, matxinda baten asiera ematen bai zuan bertan gertatzen ari zana ikusita, festa guztiak bertan bera gelditu ziran elizakoak ez izan arren eta eleiz bira Magdalen egun ura eta Santiyokoarekin bat egiñaz Mesa Nagusiak izandu ziran jai giro apur bat festa giroaren antza zuten urte artakoak.

Gauetako zarata ugari oraingo musika oso atsegiñ ez zaidanaren ots ugari jasan bear ere izandu ditut aldi askotan bañan gaztediaren era berria izanik berauek ere ori atsegin dutelarik jakinda entzun gogor egiñaz nola edo ala pasa bearra izan det.

Etxe aldaketa egitea oso penagarria izan nuen ainbeste urteetan nere jaiotetxe maiteko tresna eta oroigarriak bildu eta etxe berrira eraman bearra izan nuanean; zenbait oroipen bertan igarotako egunak oroituaz eta onela iritxi zan 1.997ko Urrillaren 7a etxea uztuta ikusi ondoren sotoko ateari laztan bat eman nion agur eginaz Santa Maria kaleko nere jaiotetxeari malko batzuek nere begietatik une artan ixurtzen ziralarik.

Bañan agurrarekin batera begira egin nion Boninoko espartañ aundiari beti bezela ertzainaren nortasuna kaleari azaltzen ziola ikusirik, oraindik ere zail da eguna ikustalditxo bat egin gabe gelditzen naizela bere berrikuntzak nolatan dijoazten jakiteko.

Orain ordezeko jarri nauten etxe berria oso atsegiñ eta aurrerapenez betea eta gure zartzarorako guztiz ona, baiñan nere etxe zarra beti maite izanen dut eta ez det beinere aztuko bizi naizen bitartean Santa Maria kalekoa naizela esango dut.

Eta ona emen nere jaiotetxe miña lerro auen bitartez azaldu berauekin gorasarrea berari egiñaz:.